

Josune Zabala

«Gero eta gutxiago hitz egiten dugu»

Ahokotasunak erakarrira Gargantuaren sabelera sartu da.
Mingainetik tira diogu, guk ere.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Leku bateko hizkerari erreparatuta zer jakin daiteke bertako jendeari buruz?

Dena. Hizkerari erreparatuta baino, hiztun horrek esandako gauzei eta esateko moduei begira, jakin genezake zer pentsatzen duen kultura batek, hiztun komunitateak errealitatea nola bizi duen. Hizketa-ekintza sozio-diskurtsiboa da, eta horrek esan nahi du komunikatzen garenean sozialki komunikatzen garela. Nolako gizartea, halako komunikazioa. Horregatik, nekazal giroko hizkerak transmititzen duena edo ingurune industrial bateko, hiri bateko hizkerak transmititzen duena desberdina da. Eta genero aldetik ere berdina: desberdina da gizonezko baten jarduna eta emakumezko batena.

Euskaldunon ahoko hizkuntzari erreparatuz, zer esan daiteke gutaz?

Erantzun arriskutsua da hori. Topiko asko daude. Askotan esaten da euskalduna gogorra eta hitz motzekoa dela. Ba, guk edadetu asko elkarrizketatzen ditugu, eta haien etxeetara joaten garenean barrua erakusten digute: mai-tasunaz hitz egiten dute, sexuaz, beraien ezintasunez... Topikoetatik aparte, esan daiteke oso biziak garela, ez garela jardunean luzatzen. Argentinarrekin konparatuta, adibidez, gurea askoz elkarrekintza azkarragoa da, eta ahal bada jolastu egiten dugu hitzarekin. Eta esaten dugunak, normalean, mezua agerian dauka. Beste muturrean, argentinarren kasuan, adibidez, ez da erraza gari artean alea topatzea. Gurean dena da alea, dena informazioa, ahal bada lasto gutxi.

Zeintzuk dira ezagutzen ditugun ahoko generoak?

Batetik, ahoko literatura daukagu: baladak, kankak, bertsoak, antzerkia, xaribariak, pastoralak, maskaradak, ipuin-kontakteta, txisteak, esaera zaharrak... Eta bestetik, ahoko egoera arruntetan sortzen ditugun generoak. Hauek ez dira literatura, baina ahoko generoak dira: kazetaritza-elkarrizketa, lagun-en arteko elkarrizketa, debatea, jende aurreko azalpenak, irakaslearen instrukzioak, edozein kontakteta mota...

Mintzolak badu bere zuzendaria, baina zeintzuk izango dira ikerlariak?

Hainbat lan-talde osatzeko asmoa dago. Ahokotasunean interesa duen jendea harremanetan jarri eta batzarrak sortuko dira. Horren harira, ikerketa mota desberdinak sortuko dira. Demagun unibertsitateko talde batek interesa duela "ahokotasuna ikasgelan" aztertzeko. Ba, ziurrenez, haiekin proiektu bat garatuko da. Edo Bertsozale Elkarteak definitzen dituen ikerketa beharrak lantzeko proiektuak garatuko dira. Edo Antzerkizale Elkarteak baldin badauka gure herri antzerkigintza ikertzeko gogoia, ba, aurrera. Oraindik proposamenak ez daude mahai gainean, baina ikerketak aplikatuko dira.

Nortasun agiria

Josune Zabala Donostiako parte zaharrea jaio zen 1978an, baina Errezilen bizi da, aitaren herrian. Euskal Filologian lizentziatua da, hizkuntza kudeaketan aditua, eta ikerketa eta didaktika arloetan jantzia. Ahoko komunikazioan espezializatu zen, eta zahar eta gazteen arteko elkarrekintza ikertzen aritu da komunikabideetako debateak aztertuz. Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoko aurreneko zuzendaria izan zen, eta joan den maiatzaren 4tik ahokotasuna ikertuko eta transmitituko duen Mintzola Fundazioko zuzendaria da.



☉ Josune Zabala

tuak izango dira. Zer behar dauden, haiei erantzun diegu, eta zuzenean transmisiora bideratuko. Gu hainbat erakunderekin jarriko gara harremanetan, eta haiek esaten badute “behar hau dago”, ba, gu behar horiei erantzuten saiatuko gara. Gizartearen esku dago zer ikertuko den eta zer transmitituko den.

Zein erakunderekin harremanetan egingo duzue lan?

Batetik, ezagutzaren edo ikerkuntza teorikoaren dimentsioa handitzen dutenak daude, unibertsitateak: EHU, Deustuko unibertsitatea, Mondragon unibertsitatea, Nafarroakoa, Baionakoa... Bestetik, ahozko generoetan interesa daukaten erakundeak: Labayru, Badihardugu Elkartea, Ikastolen Elkartea, Bertsozale Elkartea, laster sortuko den Antzerkizale Elkartea... Horietan esperimendazio bizian daude, bizia ekoizten dute, bizia ematen dute eta gainera galderak daukate. Osagarriak dira, ezagutza dimentsioaren mailan daudenek metodoa ezagutzen dute, badakite non dagoen jakintza. Ezkongarriak izan daitezkeen bi eremu handi dira.

Ahozko genero batzuk desagertuta daude, beste batzuk bizi-bizirik, beste batzuk erdibidean... Nola markatu ikerketa lehentasunak?

Lehentasuna gure ahozkotatasunaren mapa egitea da. Jakiteko zer daukagun, zein egoeratan gauden eta zer behar dauden genero bakoitzean. Ondoren, lehentasuna zeri eman? Hori parte hartzen duten erakundeen eta egitasmoen araberakoa izango da. Lehenengo, ikertzeko prest dauden pertsonak behar ditugu, norbanakoak. Baldin badaude, horiei laguntzen saiatuko gara. Mapa egin, eta dugun errealitate horretatik abiatuko gara.

Zer premia dauka gure gizarteak ahozkotasunari dagokionez?

Gero eta gutxiago hitz egiten dugu. Lanean gaudela lanaz hitz egiten dugu, “hau egiten ari naiz...” eta abar. Orainaldian hitz egiten dugu ia beti. Gure diskurtsoak ezaugarri jakin batzuk ditu. Lagunartean ere gero eta gutxiago elkaritzen gara, gure harremanak Internet bidez egiten ditugu, telebista ikusten dugu... Ez dugu gure adinduek daukaten jakintza jasotzen, transmisioa eten dugu. Familietan ere, gurasoen eta haurren artean badago lotura, baina beste belaunaldi horrekiko harremana ez da garai batekoa bezalakoa: lehen hiru belaunaldi edo lau elkarrekin harremanetan zeuden. Askok ere komunikazio txikiagoa da egungoa, estuagoa, eta komunikazio egoerak ere gutxiago dira. Ahoz gutxi komunikatzen gara, eta komunikatzen garenean ezaugarri jakin batzuetako diskurtsoa eraikitzen dugu, beste ezaugarri asko falta zaizkigu garatzeko eta praktikan



jartzeko. Ikaragarriko beharra dago jendurrean hitz egiten ikasteko ere. Ez gaituzte jartzten, ez gaituzte jarri eskolan, edo jarri bagaituzte ez modu landuan, eta orduan urduri jartzten gara, asko kostatzen zaigu, ez dakigu zer esan...

Zergatik ematen du halako beldurra jendurrean hitz egiteak?

Gure gizartearen ez dugu positiboki baloratzen jendurrean hitz egitea. Jendurreko hizketa hori, hemen, ez da gozamenean oinarritzen, beste ikuspegi bat dauka. Pertsona bat jendurrean hizketan hasten bada, protagonismoa nahi duela ulertzen dugu. Eta emakumezkoa bada are gehiago. Txip hori daukagu: zenbat eta gutxiago eta zenbat eta gutxiagoren artean hitz egin, hobeto. Beste kultura askotan juxtu kontrakoa gertatzen da. Badaukagu sozialki arazo hori, ez nabarmentzeko beharra. Bertsolariak dute horretarako zilegitasuna, bertsolari egiten dutelako eta kantatu egiten dutelako, baina besteek, nola ba? Ez dakigu jendurreko komunikazioa modu gozagarrian bizitzen, sufrimendurekin lotzen dugu.

Zertan aldatu da erretorikaren artea?



Erretorikaren artea desagertu egin da. Lehen garrantzi handia ematen zitzaion, batik bat, mundu erlijiosoan. Apaizek erretorika landu dute eta beren sermoiak horren arabera landu dituzte. Oraindik entzun beharra dago zenbait apaizek ze elegante hitz egiten duten! Jakintza hori ez da transmititu. Garai batean, apaizen bitartez ume txikiei erakusten zitzaien. Askotan gertatzen zait pentsatzea: “Hori seguru frantziskotarrekin ikasia dela” edo “hori, jesuitekin”, eta asmatu. Bakoitzak bere estiloa du, eta hitz egiterakoan igarri egiten zaie. Baina eskolan ez zaio horri heldu.

Zenbateraino dago ahozko komunikazioa gorputz adierazpenarekin lotuta?

Gure irakasle batek esaten zuen ahozko komunikazioan %80 dela gorputza, eta %20 hitza. Ni ez nago erabat ados proportzioan, baina hark esaten zuen filologok beti ari garela hizkuntza gora eta behera, ez diogula gorputzari erreparatzen, eta gorputzak askoz gehiago komunikatzen duela ahozko diskurtsoak baino.

Beti entzuten dugun zerbait da lehenengo zaharrak gu baino askoz ere kontalari trebeagoak zirela. Guk ez dauzkagun zer baliabide zeuzkaten haiek?




Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com



☉ Josune Zabala

Haiek jaso egin zuten kontaketa, eta gainera, egunero kontatzen zuten. Artazuriketari ez bazen sukaldean, ilarrak aletzen ari ziren bitartean. Batetik, eredu onak zeuzkaten, eta bestetik, kontatzeko astia eta aukera. Elkarri zuzenketak egiteko eta gauza bat behin eta berriz kontatzeko eta hobetzeko aukera zuten. Transmisioa erabat pedagogikoa zen, nahiz eta ez zen kontzientea: horretarako guneak eta uneak zituzten.

Eta inguruari erabat lotua.

Inguruaren erreferentziak etengabeak ziren diskurtsoan: ez zen berdina sare-konpontzaileen solasa edo nekazariena. Guneak eta uneak zeuden: errutinak. Pedagogikoki horixe da errutina: beti gune eta une berean egiten den zerbait. Horrela ikasten da hizkuntza, eta hizkuntza bezala, hizkuntzari loturiko beste alderdi batzuk ere bai. Garai hartan, errutina horiek lanarekin eta alderdi ludikoarekin lotuta zeuden. Herrira etortzen ziren ipuin-kontalariak zeuden, edo bazen norbait paper hori betetzen zuena. Hiletan ondoren beti omen zegoen norbait gaubela egin ondoren ipuinak kontatzen zituena giroa alaitzeko, edo gogoeta egiteko, edo mitoez hitz egiteko. Bazeuden pertsonaiak, uneak eta guneak lanari eta alderdi ludikoari lotuta. Ez ziren, ba, gu baino kontalari hobeak izango!

Eta gaur egungo belaunaldiek, errekurso horiek galdu arren, ez al dute baliabide berririk sortu?

Gu, batez ere, deskribapenean eta argudiaketa oinarritzen gara. Lehen, helburua transmititzea zen: zer garen, zer izan dugun... Baina orain arrazionalagoak eta praktikagoak gara. Lehenaldia oso gutxi erabiltzen dugu, ipuina ere apenas. Ez gara dimentsio horietara joaten, ez dugu ihes egiten. Gurea da “hemen gaude eta hau horrela egin behar da”. XXI. mendeko munduan bizi gara, hedabideetan oinarrituta dagoen errealitatean, proiektuetatik, berrikuntzatik eta etorkizunetik jaten duen munduan. Eta hori dena islatu egiten da gure jardunean, sozio-diskurtsiboak baikara.

Debateetan zahar eta gazteen arteko elkarrekin-tza aztertzean, zerekin egin duzu topo?

Gazteek ez dituzte beren argumentuak leuntzen. Helduak adituak dira horretan, iritzia emateko askoz diskurtso luzeagoak erabiltzen dituzte. Gazteak ez du leuntzen, “hau horrela da” esango du, eta gainera, beste hitzunei ez die biderik irekitzen. Aurkaritza ikuspegia du. Zaharren diskurtsoetan argudiaketa ireki egiten da eta aukera ematen du tartean iritzi desberdinak sartzeko, adibideak

eta anekdotak tartekatzeko. Nik komunikabideetako debateak aztertu ditut, eta helduak oso kontuan dauka debate horretan hartzailea berarekin dagoen jendea dela, baina baita ikus-entzulea ere. Eta hori antzeman egiten da bere diskurtsoan, erabiltzen dituen makuluen bidez edo zeharbidezko argumentuen bidez. Gazteak testuinguruaren kontzientziarik ez du. Etengabe ixten ditu gaiak, eta moderatzailea derrigortuta dago etengabe gai berriak ateratzera. Helduen artean ez da halakorik gertatzen: haien artean moldatzen dira diskurtso osoa eraikitzeko.

Telefonoa, txat-a... ahozko genero berriak ari dira sortzen.

Eta izaera desberdinak dituzte. Gero eta ohituago gaude solaskidea ikusi gabe komunikatzen. Txatarekin are gehiago. Ez dugu ahotsa entzuten, ez dugu ikusten eta letren bitartez komunikatzen gara. Ahozkoa da baina oso maila apalekoa. Ahozkoa da fonetikoki hitz egiten dugun bezala idazten dugulako, eta irakurri beharrean entzun egiten dugulako, pantailan ikusten dugunari ahotsa jartzen diogulako irudimenarekin. Baina hala ere ahozkoaren ezaugarri pila bat falta zaizkio. Ahozkoan asko errepikatzen dugu, esaldiak amaitu gabe uzten ditugu, erritmo eta tonu aldaketak daude, gorputz adierazpena... Txatean hori dena galdu egiten da.

Komunikazio mota berri hauek mezura mugatzen dira?

Hori da gure gizartearen isla. Muinera goaz, eta beste guztiari garrantzia kendu diogu: hizketarekin gozatzeari, hitz berriak sortzeari, hitz-jokoak egiteari, hitzarekin jolastearen plazerari...

“Muinera goaz, eta beste guztiari garrantzia kendu diogu: hizketarekin gozatzeari, hitz berriak sortzeari, hitz-jokoak egiteari, hitzarekin jolastearen plazerari...”

Hedabideek zer ahozkotasan eredu transmititzen digute?

Niri telebista ez zait interesatzen, ez nau harrapatzen. Komunikazio eredu bat daukate pentsatua, eta ni ez naiz eredu horretako parte sentitzen, ez naiz identifikatuta sentitzen hitz egiteko modu horrekin eta ez dit ekarpen handirik egiten. Telebista gizarte berdin bati zuzentzen zaiola esango nuke. Ez da kontuan hartzen gizartean errealitate desberdinak dauzkagula, interes desberdinak dauzkagula. Horren arabera, aukera desberdinak eman behar lirarteke bai irratian, bai telebistan... Gaztea izan arren, esaterako, ez naiz sekula Gaztea irratiarekin identifikatu, iruditzen zait ez direla niri hizketan ari. Eta berdin telebista saio askorekin edo iragarki askorekin. Masa gizartea hartzen dute kontuan, eta beste asko hortik



AZKEN HITZA

Mintzola

“Mintzola etorkizunari begira dagoen egitasmo handia da, bi ipar nagusi dauzkana. Ezkongarriak, biak. Lehenengo iparra gure ahozotasunaren iraganari begiratzea da, eta iraganetik ikastea zer izan garen eta nola komunikatu izan garen. Ikustea zein ahozko genero eraiki ditugun euskaldunok eta, alde horretatik, ikertzea bertsolaritza, ipuin kontaketa, baladen erabilera eta transmisioa, euskal antzerkia... Beste iparra etorkizunera begira dago: sortzen ari diren ahozko genero berriak zeintzuk diren identifikatzea eta horiek ikertzea. Iragana eta gaur egungoa uztartu nahi ditugu ahal den neurrian, eta batez ere, ikertu eta transmititu. Jakin eta ekin”.

kanpo gelditzen gara eta ez gara asebeteta sentitzen.

Ahozotasunaren transmisioa izan dugu hizpide, baina zer moduz gaude kulturaren transmisioari dagokionean?

Gizartea tradizionala izatetik modernoa izatera igaro zen, eta modernoa izatetik gizarte postmodernoa izatera. Transmisioa iraganetik orainera ekartzea da, eta gaur egungo gizarteak beste behar batzuk dauzka. Dena den, gizarte postmoderno batean gauden arren, euskaldunok, agian, oraindik moderno izaten jarraitzen dugu. Oraindik etorkizunari begira bizi gara, eta badauzkagu esperantza batzuk iraganean amestu ziren gauza batzuei lotuta. Iraganean amestu ziren asmo batzuk etorkizunean lortuko diren esperantza dugu oraindik. Alde horretatik, gizarte modernoa ginateke, baina bestalde, ezaugarri asko daukagu postmodernitatearen barruan sartzen gaituztenak: beste kultura batzuetako jardun kulturalak eraikitzen eta berreraikitzen ditugu gureak baztertuta, denborak eta espazioak beste zentzu bat hartu dute...

Ez dago belaunaldien arteko kultur transmisiorik?

Ez, nik uste dut eten egin dela. Industrializazio garaian gauza askok balioa galdu zuten, eta ez ziren transmititu. Eta transmititu direnak, beste era batean transmititu dira. Dantza, esaterako. Gaur egun, dantza-eskoletan irakasten da dantzan, eta zerbaiterako dantzatzen da, baina lehenagokoa galdu egin da: etxean ikasi eta plazan dantzatzearena. Kultur transmisioa ez da etxetik egiten, orain beste eremu batzuk daude horretarako, ez du familiako jendeak parte hartzen, horretarako propio prestatuta dagoen norbaitek baizik. Eta pentsatzen dut kontakizunekin-eta gauza bera gertatuko dela, hemengo kondairak bilduta daude, baina horien transmisioa nor egin behar du? Seguru aski, beste espazio batzuk sortuko dira horretarako. Bertsoekin bezala: gaur egun bertso-eskoletan ikasten da bertsoetan, horretarako propio sorturiko guneetan. Transmititzen da, baina horretarako propio egituratuta dauden beste sistema batzuetan, eta modu kontzientean. Eta bidean, jarduera hauen erotika galdu dela iruditzen zait. Gure edozein kultur jardueratan plazera eman eta jasotzeko geneukan gaitasuna, jolasera generamatzen barne-gogoa piztuta izatea. Erakustaldi, kantaldi edo txapelketa kontzeptuekin lotzen ari gara kultura, eta merkatu bihurtzen. ■